

Aitor Eliasen ‘Eta orain zer’ lana da VII. ANDOAIN LABURREAN bideo laburren lehiaketaren irabazlea

- Guztira 7 ikus-entzunezko jaso dira, proposamen berritzaileak eta Martin Ugaldere urteurrenari egindako keinuak nabarmendu diren edizio honetan.
- Bigarren saria ‘Copernicus’ (Unai Garcia) lanak jaso du eta ikusleen saria ‘Martin Ugalde idazlearen laburmetraia’ (Asier Arrieta eta Ibai Muñoz) lanak eskuratu du.

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak eta ESCIVI-k (Andoaingo Zine eta Bideo Eskola) elkarlanean antolatzen duten *Andoain laburrean* lehiaketak baditu irabazleak, Bastero Kulturgunean gaur iluntzean egin den ekitaldian jakinarazi denez. Hala, epaimahaiak erabaki du **Aitor Eliasen** *Eta orain zer* izeneko lana dela *Andoain Laburrean* laburmetrai lehiaketako aurtengo irabazlea. Mainer Lainez alkatearen eta Alexander Huitzi euskara zinegotziaren eskuetatik jaso du egileak 500 euroko diru-saria. Halaber, Aitor Gametxo zinemagile gaztea izan da ekitaldiaren gonbidatu berezia oraingo honetan eta *Berak baleki* lana ikusteko eta komentatzeko aukera izan da.

Aurtengo edizioan, zazpigarrena, 7 ikus-entzunezko bideo labur original jaso dira, Alexander Huitzi euskara zinegotziak azpimarratu duen bezala “aurtengo edizioan, berriz ere gazteen kezka eta beldurrak argitara atera dira. Etorkizuna nolakoa izango ote den, denboraren indarrak zein ondorio izango dituen edo familia eta maitasunaren gorabeherak izan dira beste urte batez laburmetraien gai jorratuenak”.

Epaimahaiak **Eliasen** lana saritzeko, haren ikuspuntu berritzailea nabarmendu du. Hain zuzen, off-eko ahots batez baliatuz eta kamera orijinaltasunez kokatuta, ikastertxe eta ikasturte berri baten haserakoan edonork senti ditzakeen bizipenak islatzeari eman diote balioa. **Unai Garciaren** *Copernicus* lanari dagokionez, bigarren saria jaso du egungo bizimoduari, robot pertsonaia baten bidez, egiten zaion kritika berezia egiteagatik. 200 euroko diru-saria jaso du Garciak.

Halaber, aurtengo edizioan andoaindarrek ikusleen saria bozkatzeko aukera izan dute. Web bidez, herritarrek Martin Ugaldere zenbait bizipen jasotzen dituen lana hautatu dute eta Bastero Kulturguneko zinemarako bi bazkidetza bono eskuratuko dituzte **Asier Arrieta** eta **Ibai Muñoz** egileek. Guztira, 440 pertsonak bozkatu dute ikuslearen sariaren lehenengo edizioan.

Kimuak-en laburmetraia

Sari-ematearen ostean, lan sarituak ikusteko aukera izan dute Kulturguneko ekitaldi-aretoa bertaratu diren herritar eta parte-hartzaileek eta, ostean, Aitor Gametxo zinemagile lekeitiarraren azken lanez gozatzeko aukera izan dute. Hain zuzen, aurtengo *Kimuak* izeneko

Andoaingo Udala

euskal sortzaile gazteen bideo laburren bilduman dagoen *Berak baleki* lana ikusteko aukera izan dute eta egilearen ahotik bertatik ezagutzeko, ikus-entzunezko honen xehetasunak.

Andoain laburrean bideo lehiaketa 2015 urtetik Udalak eta ESCIVI-k elkarlanean antolatzen duten txapelketa da. Bi erakundeek balioa eman nahi izan diete elkarlanari eta lortutako emaitzei. Izan ere, gazteen artean euskararen erabilera sustatu eta sormena bultzatzeko helburuarekin, edizioz edizio, herriko sortzaile gazteak lanean jarri ditu lehiaketa honek, euskara eta Andoaingo herria ardatz hartuta. Aurten herriko seme kutun Martin Ugaldereen jaiotzaren mendeurrenaren harira, idazle eta euskaltzalearen bizitza eta lanari keinu berezia egin nahi izan zaio, aurkezten ziren bideo guztietan agertu behar baitzuen Andoaingo Udalak pasa den urtean argitaratu eta Anjel Lertxundik idatzitako Martin Ugalde mendeurrena: *herriminaren prosak* izeneko liburuaren ale bat.

Andoain, 2022ko otsailak 17.